

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

3132

552/2018 EBAZPENA, maiatzaren 18koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinen bidez hutsik uzten den Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko osasun zerbitzu-erakundeetan destinoa duten fakultatibo mediku eta teknikarien lanbide-taldeko zenbait kategorietako 2017ko lekualdatze-lehiaketaren deialdia.

Osakidetza-Euskal osasun-zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 10eko 1398/2017 Ebazpenaren bidez (azaroaren 30eko EHAA, 229. zk.), zehazten diren osasun-zerbitzuetako erakundeetan destinoa izango duten fakultatibo mediko eta teknikarien lanbide-taldeko lekualdatze-lehiaketa deitzen da (lanpostu funtzional hauetarako izan ezik: fakultatibo espezialista familia-medikua-LMAT eta fakultatibo espezialista Pediatriako medikua-LMAT).

Aipatu ebazpen horren bitartez deitutako zenbait kategorietako lekualdatze-lehiaketan parte hartzeko eskabiderik jaso ez dela ikusita, hutsik uzten da kategoria horiei dagokienezkoa.

Adierazitakoagatik, indarrean den legeriak aitortzen dizkidan ahalmenez baliatuz, hauxe

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Hutsik uztea kategorია hauetako lekualdatze-lehiaketa:

- Bihotz–hodietako Kirurgiako fakultatibo espezialista medikua.
- Kirurgia Pediatrikoko fakultatibo espezialista medikua.
- Toraxeko Kirurgiako fakultatibo espezialista medikua.
- Emergentsietako fakultatibo espezialista medikua.
- Immunologiako fakultatibo espezialista mediku-teknikaria.
- Ospitaleko Erradiofisiologiako fakultatibo espezialista mediku-teknikaria.
- Fakultatibo teknikari biologoa.
- Fakultatibo teknikari farmazialaria.

Bigarrena.– Ebazpen hau EHAA n argitaratzeko agintzea.

Hirugarrena.– Deialdiaren 11. oinarrian ezarritakoarekin bat etorriz, ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkez dakioke Osakidetza-Euskal osasun-zerbitzuko Administrazio Kontseiluari, hilabeteko epean, ebazpen hau EHAA n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko maiatzaren 18a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA JESÚS GEMMA MÚGICA ANDUAGA.